

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBE-KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	DBH 1
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	GORPUTZ HEZIKETA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	MATEMATIKA, NATUR ZIENTZIAK, EUSKERA, INFORMATIKA, PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	Konpetentzia motorra Arterako konpetentzia Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia Matematikarako konpetentzia Zientziarako konpetentzia Teknologiarako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Asier Hinojosa	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:

1. Izaten ikasteko konpetentzia
2. Elkarbizitzarako konpetentzia
3. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Osasuna bere osotasunean ulertzea eta zaintzea. Hau da, osasunaren ezaugarri guztiak kontuan hartzea (biologikoak, bioenergetikoak, emozionalak, psikologikoak, dietetikoak eta higienikoak), eta, horrez gainera, arnasketa- eta erlaxazio-teknikak nahiz segurtasun-neurriak ezagutzea, bizi-kalitate onaz gozatzeko.	1. Mugimendu artikulatuak lantzeko jarduerak, jolasak, luzaketak eta ariketak biltzea, beroketarako egokiak direnak eta eskolan landu direnak. 1.1- Ea biltzen dituen (bai idatziz, bai euskarri digitalean) edozein jarduera fisiko egiten hasi aurretik berotzeko beharrezko diren hainbat jolas eta ariketa. 1.2 - Ea dakien ariketen oinarriko katalogo bat autonomiaz egiten; katalogo hori, hain zuzen,

<p>2. Osasunaren eta bizi-kalitatearen egoera hobetzeko egiten den jarduera fisikoaren erabilera (ohikoa eta sistematikoa) balioestea.</p> <p>3. Errendimendu motorraren aukerak handitzeko, osasun-egoera fisikoa hobetzeko, eta gorputzaren doitze-, menderatze- eta kontrol-funtzioak perfektionatzeko lanak egitea, eta zeregin horretan nor bere burua behartzeko jarrera hartzea.</p> <p>4. Kiroleko jarduera fisikoak egin bitartean sor daitezkeen lesioetan lehenengo zer egin behar den jakitea eta hori aplikatzea, prebentzioerabakiak hartu ahal izateko; horrela, esku-hartzeko protokolo espezifikoak aplikatuz, errekupeazioa bizkorragoa izango da.</p> <p>5. Hasierako mailaren balorazioa kontuan hartuta, ahalmen fisikoekin eta trebetasun espezifikoekin lotutako premiak ase ditzaketen jarduerak planifikatzea, jarduera fisikoaren programak autonomiaz eta bananbanan sortzeko.</p> <p>6. Inguruak ematen dizkigun aukerak baliatuz, ingurumen-inpaktu txikia duten natura-ingurunekeo jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak aztertzea, diseinatzea, antolatzea eta horietan parte hartzea, eta, horrez gainera, leku horiek mantentzen laguntzea.</p> <p>7. Banakako, taldekako eta aurkaritzako kirol- eta jolas-jarduerak ezagutzea eta egitea, eta, horietan, araudi-oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatzea; horrez gainera, ekintza horiek gero eta autonomia handiagoz gauzatzea.</p> <p>8. Jarduerak, jolasak eta kirola egitean, errespetuz jokatzeko, talde-lanean aritzeko eta kiroltasunez jarduteko trebetasunak eta jarrera izatea, bakoitzaren kultura-, gizarte- eta trebetasun-desberdintasunak kontuan hartu gabe.</p> <p>9. Ezkutuko curriculumaz aztertuz, gizarteak gorputza lantzeari, jarduera fisikoari, kirolari eta osasunari buruz duen ikuspegia modu kritikoan eta autonomoan aztertzea, mezu gaiztoak identifikatu ahal izateko.</p> <p>10. Musika oinarri hartuta edo hartu gabe, adierazpen-jarduerak egitea eta diseinatzea, eta gorputza komunikatzeko eta sormena adierazteko erabiltzea; horretarako, dantzen eta banakako nahiz</p>	<p>praktikatzen dituen jarduera fisikoetara egokitutako beroketak egiteko erabili ahal izango du.</p> <p>1.3 - Ea dakizkien beroketen printzipio nagusiak.</p> <p>2. Jarduera fisikoarekin eta eguneroko bizitzarekin lotutako higie- eta jarrera-ohitura osasungarriak identifikatzea.</p> <p>2.1 - Ea identifikatzen eta gordetzen dituen hainbat ohitura jarduera fisikoa egitean; esaterako: tresna egokiak erabiltzea (jantziak eta oinetakoak), jarduera egin bitartean hidratatzea edo, saioa amaitu ondoren, bere higiea zaintzea.</p> <p>2.2 - Ea ezagutzen dituen jarrera egokiak, bai egiten dituen jarduera fisikoetan, bai eguneroko bizitzako ekintzetan (eserita egotea, zama igotzea edo motxilak eramatea).</p> <p>2.3 - Ea bereizten dituen ohitura osasungarriak eta osasungarriak ez direnak.</p> <p>2.4 - Ea aztertzen dituen osasunerako onuragarriak diren ondorio iraunkorrak (indarrean lan egiteak eta muskulu-erresistentziak eragindakoak).</p> <p>3. Ikasturtean landu diren eta osasunarekin lotura duten ezaugarri fisikoak handitzea, eta hasierako mailarekiko hobetzea.</p> <p>3.1 - Ea bere buruarekin zorrotz agertzen den osasunarekin lotuta dauden ezaugarri fisikoak hobetzeko ahaleginean.</p> <p>3.2 - Ea hobetu duen erresistentzia aerobikoaren, indar-erresistentziaren eta malgutasunaren ahalmena hasierako mailekin alderatuz.</p> <p>4. Banakako kirol baten oinarriko alderdi teknikoak hobetzea, eta lortutako maila onartzea.</p> <p>4.1 - Ea aurrera egiten duen koordinazio-ahalmenean banakako kirol bateko trebetasun espezifikoak lantzean.</p> <p>4.2 - Ea bere exekuzio-mailaren araberako autoebaluazioa egiten duen.</p> <p>4.3 - Ea gai den arazo motorrak eraginkortasunez konpontzeko.</p> <p>5. Taldean egiteko proposatutako jolasak edo kirolak praktikatzean, jolasaren fase bakoitzari (erasoa edo defentsa) dagokion mugimenekintza egitea.</p> <p>5.1 - Ea saiatzen den baloiari eusten, aurrera egiten eta marka lortzen erasora jotzen duenean, eta horretarako, ea ekintza tekniko egokiak hautatzen dituen.</p> <p>5.2 - Ea saiatzen den baloia berreskuratzen, eta aurkariari aurrera egiten eta marka lortzen eragozten, defendatzea dagokionean.</p> <p>5.3 - Ea taldean egiten duen lan, eta lankidetzaz bilatzen duen. Emaizta onak lortzeari baino garrantzi</p>
---	---

<p>taldekako antzezpene bidez, mugimendu sortzaileak garatuko dira.</p> <p>11. Jarduera ludikoak eta kirol-jarduerak diseinatzea, antolatzea, kudeatzea eta hortietan parte hartzea, helburu bateratuak lortzeko; helburu horiei esker, aisialdi-denboran beste pertsonekin elkartu eta lankidetzan aritu ahal izango da.</p> <p>12. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoek eta fisiko nahiz kirolekoek duten gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta baloratzeko; horretarako, dantzak, jolasak eta tradizioko adierazpen herrikoiak praktikatu dira.</p> <p>13. Zenbait jolas mota, kirol-jarduera eta dantza aztertzea, hainbat informazio-iturri baliatuz modu autonomoan aukera zabalago bat eskuratzeko</p>	<p>handiago ematen dion tolerantziari eta kiroltasunari.</p> <p>5.4 - Ea parte-hartze aktiboa duen jarduera fisikoetan eta kiroljardueretan, eta, ezarritako erregelak eta arauak errespetatzeaz gainera, materialak eta instalazioak behar bezala erabiltzeaz arduratzen den.</p> <p>5.5 - Ea koordinatzen dituen norberaren ekintzak taldekideekin, eta hautatutako kirolean lehiakortasunez parte hartzen duen.</p> <p>6. Hainbat teknika erabiliz (mimoa, keinuak, antzezpena edodantza)taldean mezu bat sortzea, eta, ondoren, gainerako taldeei zabaltzea.</p> <p>6.1 - Ea behar bezala erabiltzen dituen gorputz-adierazpenerako landutako teknikak.</p> <p>6.2 - Ea baliatzen duen sormenerako ahalmena, eta, horrez gainera, sentimenduak komunikatzeko, ea erabiltzen dituen bere gorputzaren adierazpen-baliabideak.</p> <p>6.3 - Ea egoki erabiltzen duen hautatutako adierazpen-teknika.</p> <p>6.4 - Ea taldean egiten duen lan azken jarduera prestatzeko.</p> <p>6.5 - Ea erabiltzen duen gorputz-alfabetoa, eta ikaskideekin modu ulergarrian komunikatzen den; hau da, keinuak eta mugimenduak erabiliz, sentipenak, emozioak eta mezuak adierazten dituen.</p> <p>6.6- Ea dakien euskal jolas, dantza eta kirol herrikoiak egiten.</p> <p>6.7 – Ea jarrera irekia duen Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako tradizio ludikoei eta kirol-tradizioei dagokienez.</p> <p>7. Bilaketa-seinaleen oharra jarraitzea, erdigunean nahiz inguruetan egiten diren ibilbideetan.</p> <p>7.1 - Ea identifikatzen dituen ibilbide-amaierara iristeko beharrezko diren seinaleak.</p> <p>7.2 - Ea jarraitzen dion ezarritako ordenari, eta ahalik eta azkarren, gainera.</p> <p>7.3 - Ea gai den jarduera gauzatzen ari den ingurune fisikoan eta gizartean errespetuz jokatzeko.</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje].

- 1. EBALUAZIOA:
 - _ Froga eta gaitasun fisikoak
 - _ Beroketa orokorra
 - _ Gorputz egoera eta osasuna I
 - _ Eskalada
 - _ Jolas kooperatiboak eta tradizionalak

- 2. EBALUAZIOA:
 - _ Taldeko kirolen hastapena (Errugbia)
 - _ Atletismoa
 - _ Gimnastika, gorputz adierazpena eta erritmoa (kirol antzerkia)
 - _ Kirol egokitua
 - _ Gorputz jarrera

- 3. EBALUAZIOA:
 - _ Taldeko kirolen hastapena (Saskibaloia)
 - _ Kirol alternatiboak (Ultimate)
 - _ Badminton
 - _ Multiabentura
 - _ Orientazioa

- ...
- Unitate didaktikoa (arazo-egoera bat garatu eta labur azaltzen duena):
- ...

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

Globala eta aktiboa izango da, ikaslearen inplikazioa bultzatuz bere autonomia lortzeko. Jarduera ezberdinak bidali, ikasleen aniztasunean arreta jarrita. Metodo eta estrategia ezberdinak erabiliko ditugu lantzen ari garen edukinen arabera. Ikasleen mailaren arabera, irakaspenera eta hobekuntza izatea bilatu. Kooperatiboa eta arazoetan oinarritutako irakaspenera eta lana.

Proiektuen metodoa, ikasleek produkzio bat sortuz. Ikasleak modu ezberdinetan taldekatzen: talde mistoak handian edo txokoetan; talde homogeen edo heterogeenetan; binaka, zirkuituak...

Fase zuzendua: Irakasleak edukia egituratzen du, lan modua eta lan printzipioak aurkezten eta aztertzen ditu.

Fase autonomoa: Ikasleak bere jardura prestatzen, burutzen eta ebaluatzen du. **IKASLEEN AHOZKO AURKEZPENAK ETA AZALPENAK.**

Gure Hobekuntza Planean eta [Hizkuntza Proiektuan](#) adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza

horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da".

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>1-KONTZEPTUZKO EDUKIAK: (ZER JAKIN)</p> <ul style="list-style-type: none"> -ikaslearen behaketa fitxak -ikaslearen lan idatziak -ikaslearen ahozko aurkezpenak -ikaslearen aurkezpenak power point edo classroomen bitartez -ikaslearen autoebaluazio fitxa -irakaslearen behaketa koadernoak <p>2-JOKABIDE MOTORRAREN EDUKIAK: (EGIN ETA EKIN)</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikaslea frogatzen emandako inplikazio eta ahalegina(behaketa taulak erabiliz) -Irakaslearen behaketa koadernoak -Autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiak -Saio bakoitzean ikaslearen lan praktikoa, kooperazioa eta inplikazioa. <p>3- JARRERAZKO EDUKIAK (NOLA):</p> <ul style="list-style-type: none"> -Parte hartzea 	<p>U.D. bakoitzean bi atal kalifikatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> _ 1. ATALA: U.D.ari dagokion kalifikazio espezifikoaren notaren %60. _ 2. ATALA: Jarrerarena (portaera, parte hartzea, osasun ohiturak, etabar.) notaren %40. <p>_ Ebaluazio jarraian izango da.</p> <ul style="list-style-type: none"> + Hiruhilabeteko kalifikazioa: landutako U.D. nota guztien batzuetan bestekoa izango da + Ohiko ebaluazioa: hiru hilabete bakoitzeko nota batzuetan bestekoarekin egingo da. + Ez ohiko ebaluazioa: Atal praktikoa eta teorikoa bat izango du. <p>Gaiztozko, 2 atal gaizto egin beharko dira.</p> <p>Ebaluazio batean, Klase kopuruaren %20 etortzen ez bada, ebaluazio jarraian izateko eskubidea galduko du.</p> <p>Ikasturte osoan klase kopuruaren %20 etortzen ez bada, ohiko ebaluazioa egiteko eskubidea galduko du.</p>

-Portaera
-Osasun ohiturak
-Puntualitatea
-Irakaslearen behaketa koadernoan
-Ikasleen autoebaluazio eta koebaluazioa.

Atal bakoitzeko nota gutxienez 5 izan behar da ebaluazioa gainditzeko eta batz bestekoa egiteko.

U.D. bakoitzean:

● **%60 UNITATE BEREZKO EDUKIAK:**

_ %20 KONTZEPTUZKO EDUKIAK (ZER JAKIN) Tresna ezberdinak erabiliz: lan idatziak, lanen aurkezpenak (power point edo beste tresnaz lagunduta), azterketa idatziak, ahozko azterketak...

Ezinbestekoa izango da lanak entregatzea eta aurkeztea. Ikasle batek ez badu entregatzen , ebaluazioa ez du gaindituko.

Landutako kontzeptuak ulertu eta praktikara eramán.

Epetik at aurkezten diren lanak, notaren %10a kenduko zaio.

Ebaluazio eguna baino aste bat lehenago lanak aurkezteko epea amaitzen da.

*Taldekota lana baloratzeko irizpideak: irakasleak nota bat emango dio taldeari. Nota hori taldekideen kopurutik biderkatuko da. Lortutako puntu guztiak partaideen artean bananduko dituzte, taldekide bakoitzaren inplikazioaren arabera.

_ %40 JOKABIDE MOTORRAREN EDUKIAK (EGIN ETA EKIN). Tresna ezberdinak erabiliz: Irakaslearen behaketa orriak, froga praktikoak.. Zenbait kasutan ikasleek laguntza emango dute autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiekin. Saio bakoitzean ikasle bakoitzak egiten duen lana baloratuko da. Atal honetan, lana horren batz bestekoa ebaluazio nota izango da.

● **%40 JARRERAZKO EDUKIAK**

_ 4 etortze falta justifikatu gabe: ez da gaindituko Justifikatuta badaude, klasean landutako edukien buruzko lan bat egin beharko du eta klasean aurkezpena egin.

_ 4 falta kirol arroparik gabe, klase praktikoa egiten ez badu ez justifikatutako arrazoiengatik, ez da gaindituko.

Justifikatuta edo ez justifikatuta, saioan jarduerak ezberdinak egingo ditu: lan bat egin, saioa eta saioan emandako azalpenak idatzi, saioaren hausnarketa egin, ikaskideen behaketa egin, epaile lana burutzen, materialarekin laguntza eman, etabar.

	<p>Jarrera baloratzeko kontuan izango ditugun atalak:</p> <p>A._ PARTE HARTZEA notaren %15 <input type="checkbox"/> Proposatutako jarduerak onartzen ditu. Gogoz parte hartzen du. <input type="checkbox"/> Hobetzeko nahia erakusten du. <input type="checkbox"/> Aktiboki parte hartzea, etortzea.</p> <p>B._ PORTAERA notaren %10 <input type="checkbox"/> Kiroltasunez jokatzea: - Bere kideek egindako lorpenak baloratzen ditu. Lankidetzat eman. - Bere ikaskideei laguntzen die okertzen direnean.</p> <p><input type="checkbox"/> Irakasleekiko, ikasleekiko begirunea eta material eta instalazioetako errespetua. <input type="checkbox"/> Pertsona bakoitzaren mugak errespetatu eta onartu trebetasunetan dituzten desberdintasunak sexuaren eta ahalmen fisikoaren arabera. <input type="checkbox"/> Arreta. Azalpenetan eta ikaskideekiko aurkezpenetan adi egotea.</p> <p>C._ OSASUN ETA HIDIENE OHITURAK notaren %10 <input type="checkbox"/> Kirol arropa eta oinetakoak eramatea, azken hauen lokarriak ondo lotuta eramanez. <input type="checkbox"/> Duxa hartu eta arropaz aldatu. <input type="checkbox"/> Txikleak eta gozokiak ez jatea. <input type="checkbox"/> Ile luzea motots batean biltzea. <input type="checkbox"/> Txistua lurrera ez botatzea, klasean.</p> <p>D._ PUNTUALTASUNA notaren %5 <input type="checkbox"/> Klase guztietara puntualtasunez etortzen da eta joaten da.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación].</p>	
<p>6. BERRESKURAPEN SISTEMA:</p> <p>U.D. bateko edukiak berreskuratzeko, egin gabe edo gaizki egindako jarduerak edo lanak irakasleak jarritako epeetan egingo dira.</p> <p>Hutsegiteagatik edo materiala ez ekartzeagatik gainditzen ez duten ikasleek klasean landutako gai buruzko azterketa bat egin behar izango dute.</p> <p>Ohiko eta ez ohiko azterketa. Atal praktikoa eta teorikoa izango du. Gainditzeko, 2 atalak gainditu egin beharko dira.</p> <p>7. EGOERA BEREZETAKO KALIFIKAZIOA :</p>	

Epe luzerako saioetara arrazoi justifikatu bategatik etortzen ez diren ikasleak (ospitalean edo etxean geratu egin behar direnak) lan bat egin beharko dute.

Lana bere klasea momentu horretan lantzen ari diren edukiekin zerikusia izango du.

Froga fisiko eta idatzia bere egoera berezira egokituta ere egin behar izango dute.

8 .EXENZIOAK:

Legearen arabera ez dago inolako exentziarik arloan. Dena dela, curriculumaren adaptazioak onartzen dira.

OHARRAK / *OBSERVACIONES*

--